



Mugikorrak, dominazio arma



JESÚS RODRÍGUEZ
DIRECTA-KO KAZETARIA

Teknologia kritikatzeko ez dago ondo ikusia. Beti dago argudio hau: kon-
tu bat dira aurrerapen teknologi-
koak, eta beste bat, nola erabiltzen diren.
Armen kasuan, aitzakia hori berehala
deuseztatzen da: pistola batek zertarako
balio dezake, hiltzeko ez bada? Mahai
baten herrera berdintzeko erabil gene-
zake, edo zartagin bat zultzeko gaztai-
nak txigortzeko; baina erabilera buruga-
beak izango lirarteke, eta pistola egiteko
prozesu industrial osoa zentzugabea eta
alferrikakoa bihurtuko litzateke.

Martxoan, Mugikorren Munduko
Biltzarra (MWC) egin da Bartzelonan.
Komunikazio-teknologiaren hitzordua
globala da, eta telebista bidez iragar-
tzen digute, tolestean diren pantaileri,
urperatzeko gailuei eta deiak kudeatzen
dizkiguten robotei buruzko erreportaje
hutsalekin. Prou Complicitat amb Israel
eta La Fira en la Mira antolakundeek
biltzarraren atarian salatu dutenez, Israel-
go Esportazio Institutuaren stand bat
egoteaz gain, erregistratutako 37 en-
presa israeldarren artean “bederatzik
zuzeneko loturak dituzte armadarekin
eta Israelgo Defentsa Ministerioarekin”.
Hauexek lirarteke enpresa horiek: Wear-
able Devices, Heqa Security, Gilat Satellite
Networks, MTI Wireless Edge, FirstPoint
Mobile Guard, DeepKeep, Checkpoint,
SpaceCom eta Symmetrium.

John Hoffman MWCren antolatzaile-
aren erantzun zinikoa izan da konpen-
tsatzeko hamar bat enpresa palestinar
gonbidatu dituztela. Israelgo enpresa

Orain, borondatez,
gure poltsikoetan
jartzen ditugu gure
mugikorretako
mikrofonoak, eta
aplikazioen jabeei eta
telefonía enpresei gure
pribatutasun osoa
ematen diegu

teknologikoen presentziaren arazoa ez
da kuantitatiboa, kualitatiboa baizik. Bar-
tzelonako Udaleko espazio batera gonbi-
datu al daitezke lurralde okupatuetakoa
apartheidean eta sarraskian aktiboki par-
te hartu duten enpresak? Israelgo enpre-
sa handiek garatutako softwareak erabili
dituzte Gazako eta Zisjordaniako ehun-
ka, milaka, herritar geolokalizatu, iden-
tifikatu, monitorizatu, jomugan jarri eta
suntsitzeko. Haurtxoak ere bai. Basake-
riaren industria teknologikoa zigorgabe
mugitzen da planetan, alfonbra gorriak
zapaltzen, Israelgo inteligentziaren 8200
Unitatetik sektore pribatura pasatu diren
–Pegasus, Oracle edo Palantir-en bidez–
administratzaile eta programatzaileekin.

Bizi dugun pantomima beldurgarria
da. Hamarkadak eman ondoren mikro-
fono ezkutua bilatzen eta infiltratuak

azaleratzen aktibismo politiko eta sozia-
lean, orain, borondatez, gure poltsikoe-
tan jartzen ditugu gure mugikorretako
mikrofonoak, eta aplikazioen jabeei eta
telefonía enpresei gure pribatutasun
osoa ematen diegu. Eskrupulurik gabeko
pertsonaiek, hala nola Elon Musk, Mark
Zuckerberg, Jeff Bezos eta Larry Ellison,
Donald Trump autokrata inperial berria-
ren zerbitzura lan egiten dutenek, datuak
kudeatzen dituzte eurek nahi dutena kon-
sumitu eta pentsatu dezagun eta eurek
nahi duten bezala mugituzte lortzeko.
Euren interesetat deserosoak bagara,
lehenengo mehatxatu egingo gaituzte, eta
gero ez dute dudarik egingo katua saka-
tzeko. Eta oraindik ere bada demokrazian
bizi garelako pentsatzen duenik.

Mugikorren teknologia, gaur egun,
dominazioaren teknologia da. Berandu
baino lehen, askatasun sentimendu mi-
nimo batzuk ez galtzarren eta konplize
izateari uzteko, amarru hau guztia alde
batera utzi beharko dugu, erabateko
adikzio fasean gauden arren. Sektatik
ateratzea posible da eta alternatibak
behar dira. Milaka pertsona sare sozial
berrietan pentsatzen eta lanean ari dira,
inperiotik askatutako beste mundu ba-
terako. Ez egin uko komunikatzeari, be-
launikatu gabe GAFAM –Google, Apple,
Facebook, Amazon eta Microsoft– erral-
doien aurrean eta beste txikiago baina
arrisku bereko batzuen aurrean. Bitar-
tean, antidoto ona izan daiteke bizilagun,
lagun edo lankideekin hitz egitea, pantai-
la bidezko bitartekaririk gabe. ●